

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2.313 positibo guztira*

NAFARROAN

0 hildako
7 PCR positibo berri
0 hildako
5.294 PCR positibo guztira
62 ospitalizatuta

*Hernanin 60 Astigarragan 20

Sendatuak EAEn: 16.510; Naf: 5.963

Hainbat ikasleren beharrak asetu ditu Hernaniko Udalak, herriko ikastetxeekin elkarlanean arituz

Larrialdi egoerak, eragin handia izan du arlo askotan, baita irakaskuntza eremuan ere. Hori dela eta, «larritasuna arindu nahian», Hernaniko Udalak, herriko ikastetxeekin elkarlanean, hainbat ikasleren beharrak asetu ditu.

HERNANI UDALA

Koronabirusak sortu duen larrialdi egoerak, eragin handia izan du bizitzako hainbat arlotan, «baita irakaskuntzaren eremuan ere» jakinarazi du udalak. Ikastetxeak itxita mantendu dira, Hernaniko Udalaren arabera «etxeak bihurtu dira eskola akademikoak, etxeak berezko eskolatik duenaz gain, eta ikasleek beren lan moldeak eta bitartekoak egokitu behar izan dituzte, abiadura bizian eta

baliabide ez nahikoekin, egoera berrira».

Gainera, azaldu du, bapateko aldaketak izan direla orain artekoak, «hezkuntzaren gabeziak, eta jendartea astindu duen ziurgabetasunak, besteak beste». Egoera «zailak» izan direla jakinarazi du, eta «zailtasun hauek, behartsuenak kolpatu dituela gogorren».

Hori guztia kontuan hartuta, eta urtean zehar Hernaniko Udalak herriko ikastetxeekin duen elkarlanean oinarrituta,

ikastetxeei, eta bereziki ikasleei laguntza eskaini die.

Konfinamendu egoeran, emandako laguntza

Aipatu moduan, larritasuna arindu nahian, Hernaniko Udalak, laguntza eskaini die herriko ikastetxeei. Eta honakoak izan dira udalak jasotako eskaerak: Zenbait ikastetxek ordenagailuak haurren etxetara eramateko laguntza eskatu dute; interneterako konexioa behar duten familietarako txartelak erosi eta banatzea eskatu dute beste ikastetxe batzuek, eta aldez beste hainbatek zenbait haurrei, etxeko lanetan aparteko errefortzua emateko eskaera ere luzatu dute.

Etxeko lanetarako errefortzu

programa

Ikastetxeekin elkarlanean urtean zehar egiten diren egitasmo «mordoxka» baten barruan, udalak, badu etxeko lanetarako errefortzu programa bat, «familia etorkinetako haurrei eskaintzen dioguna» hain zuzen.

Errefortzu programa horretako proposamena, 2016ko aurrekontu parte hartzaileetan egin zuen herriko elkarte batek, eta «martxan jarraitzen du orduz geroztik». Udalak azaldu du, programa honekin hezkuntzak duen gabeziari erantzuten diotela, izan ere, LH 4-5 eta 6ko 40 bat haurri eskaintzen zaie laguntza, eta «ikastetxeek esker-tzen dute».

Kaxkardik, esfortzu saioak

Udalaren bidez, Kaxkardi elkar-

teak ematen ditu ikasturtean zehar errefortzu saio horiek, eta orain udalak, elkarteari eskatu dio «konfinamenduaren hila-bete hauetako lana beste modu batera antolatzea».

Kaxkardiko elkarte beraz, arduratu da, ordenagailuak hainbat familietara eramateaz, «zehazki 90 familietara eraman dira ordenagailuak», eta horrez gain, ikastetxeek eskatutako haurrei errefortzua ematen ari dira, «20 haur ingururekin daude harremanetan, eskolaren lana indartuz eta goxatuz».

Gainera, beste familia multzo bati interneteko konexioa erraztu behar izan zaie, izan ere, «33 familiak adierazi dute behar hori», eta udalak, *Izarkom* kooperatibari eskatu dio behar hori asetzeko. **K**

Irekita dago, Musika Eskolako aurrematrikulazio epea

Atzo ireki zen, Hernaniko Musika Eskolako aurrematrikulazio epea, eta honek ekainaren 12ra arte iraungo du. Gestio guztiak online izango dira musikaeskola.hernani.eus-en eta online ezin duenak, aurrez hitzordua eskatu beharko du, telefonoz edo posta elektronikoz.

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Ireki da Hernaniko Musika Eskolako aurrematrikulaziorako epea, atzo ireki zen, eta hilaren 12ra arte egongo da aukera izena emateko.

Bertako gestioak egiteko, webgune berria jarri dute martxan musikaeskola.hernani.eus hain zuzen. Hala ere, Musika Eskolakoek jakinarazi dute, online gestioa egin ezin dutentzat «aukera presentziala» egongo dela, aurretik hitzordua eskatzen bada.

Webguneaz gain, aurrema-

trikulazioa egiteko, emailaz idatzi daiteke zuzen.musika@hernani.eus helbide elektronikora, edo 943 33 70 50 telefonora ere deitu daiteke.

Online gestioa ezin dutentzat

Aipatu moduan, online egin ezin dutenek, aurrez hitzordua eskatu beharko dute, zuzen.musika@hernani.eus-era idatziz edo 943 33 70 50 deituz. Eta bulegora bertaratzeko ordutegia honakoa da: goizeko 12:30etatik eguerdiko 14:30etara, eta arratsaldeko 15:30etatik 20:00etara. **K**



Ireki da Musika Eskolako aurrematrikulazio epea, eta hilaren 12ra arte egongo da aukera.

MFE
MARTUTENE
Lanbide Eskola

Oinarrizko Lanbide Heziketa

ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA

INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

PEÑA
sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

AKELENEA
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo Peña

Astelehenetik ostiralera menua, bertan eta eramateko.
Arratsaldeetan terraza 20:30ak arte.

Larunbata eguerdi eta gaua irekita.
Txotxa ere bai.

Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

GAUR Goizean hodeiak egongo diren arren, ostare zabalekin tartekatuko dira eta giro lasai samarra izango dugu, hala ere, arratsaldean hodeiak ugartu egongo dira, eta horrek euria ekar dezake. **Min.16° / Max.24°**

BIHAR Bihar freskatze aldera egongo du eta euria egiteko probabilitatea handiagoa izango da. Zaparradak edonoz bota ditzake, hala ere, euria egitekotan oso puntuala izango da. **Min.15° / Max.23°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Eragileei zuzendutako Foroa
Goiizuetako Udala
Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Gaurtik aurrera lortu daitezke, #eutsihernaniri erosketa bonuak

Martxan da #eutsihernaniri izeneko kanpaina berria, herriko saltokietan eta ostalaritza establezimenduetan erostera animatzeko bonuetan oinarritutako ekimena, hain zuzen.

HERNANI UDALA

Covid-19aren ondorioz, ezarritako konfinamenduak, kalte ekonomiko handiak eragin ditu, osasunean zein jardueran ekonomikoan, eta ekonomia-ri dagokionez, merkatariek eta ostalariak, bereziki, «modu latzean ari dira krisiaren ondorioak jasaten» jakinarazi du Hernaniko Udalak. Hori horrela, kalte hauek arindu eta erosteko ohituretan eragiteko asmoz, zenbait neurri prestatu ditu.

Plan horietako bat, #eutsihernaniri erosketa txartelen kanpaina izan da. Kanpaina hau, erosketa bonuetan oinarriturik dago, «herriko saltokietan, ostalaritza establezimenduetan eta zerbitzuetan erabiltzeko» hain zuzen. 50 euroko, 10.000 bonu jarriko ditu udalak herri-tarren eskura. Eta udalak jakinarazi du, «kanpainen parte hartu nahi duen herritarrek 35 euro ordainduko ditu eta 50 euroko erosketa egiteko aukera izango du». Horrek esan nahi du, udalak, 15 euro hartuko di-

tuela bere gain, «bonuaren herena». Guztira 150.000 euro bideratuko dira ekimen honetara, eta «tokiko ekonomian izango duen eragina 500.000 eurokoa izango da».

«Kanpainen parte hartu nahi duen herritarrek 35 euro ordaindu, eta 50 euroko erosketa egiteko aukera izango du herriko dendetan»

Gaurtik aurrera bonuak eskuragai

Aipatutako kanpaina honek, zenbait fase izango ditu, eta guztira 700.000 euro bideratuko ditu udalak, «sektore horiek suspertze aldera». Udala, Be-

rriak Hernaniko Merkatariek eta Ostalariek Elkartearekin batera ari da elkarlanean. Eta ekimen honen lehen fasea #eutsihernaniri izango da.

Fase honetan, atera diren bonuak ekaina osoan erabiltzeko aukera egongo da, eta gaurtik eskuratu daitezke. Bonuen kanpaina fase desberdinetan banatzea erabaki du udalak, izan ere, horren helburua da «herritarrek dituzten erosteko ohituretan eragin eta herriko dendetan erostera bultzatzea».

Bonuak herriko bi establezimenduetan egongo dira, Berriak elkartean eta Biterin, hain zuzen. Udalak jakinarazi du, herritar guztiak izango dutela aukera bonua erosteko, «helduek zein adingabeek izango dute aukera bonua eskuratzeko». Aipatutako erosketa bonu hauek, «txartel bidez edo banketxe transferentziaren bidez ordaindu daitezke», eta azpimarratu du udalak, ez dela esku-dirutan onartuko.

Horrez gain, udalak jakinarazi du, saltoki, taberna, jatetxe eta zerbitzuak ematen dituzten negozio guztiak har dezaketela parte #eutsihernaniri kanpaina honetan. Eta gainera, «kanpainari atxikitzen zaizkion negozioek, kartel adierazgarri bat izango dute hauen erakuslehoetan» gaineratu du udalak. **K**

Eragileei zuzendutako Tratu Onen Foroa, bihar

Bihar, arratsaldeko 18:00etan, eragileei zuzendutako Tratu Onen Foroa eskainiko dute Biterin; 'Zaintzei aurpegia aldatuz, zaintzak berrantolatzen'.

HERNANI TRATU ONEN FOROA

Bihar, arratsaldeko 18:00etarako jarri du zita Arremanitzek Biterin, eta jakinarazi du, «ikasturte honetako azken Foroa» izango dela.

Azkena izan arren, «berezia eta ezberdina» izango da, eragileei zuzendutakoa baita. Arremanitzekoek, aipatu dute, aurreko Tratu Onen Foroan, larrialdi egoera honek «areagotu edo ekarri dizkigun behar indibidual eta kolektiboak jarri genien arreta». Baina oraingo honetan, behar hauei erantzuteko alternatiba praktikoei begira jartzea dute helburu. Hori dela eta, hainbat eragile gonbidatu dituzte, «ahalik eta ikuspegi zabalena biltzeko eta kolektibo ezberdinei ahotsa emateko asmoz». **K**

Udal zerbitzuen hainbat erabaki, gaur indarrean

Udal zerbitzuen berreskurapen prozesuan, zenbait erabaki hartu ditu udalak, eta gaur bertan jarriko dira indarrean.

HERNANI UDALA

Hernaniko Udalak, udal zerbitzuen berreskurapen prozesuan, zenbait erabaki hartu ditu, eta gaur bertan sartuko dira horietako batzuk indarrean.

Lehenik hartutako erabakia, Plaza Berriko komunak gaurtik irekiko direla izan da.

Bigarrenik, hiribusaren zerbitzua berreskuratuko dela aipatu du, «eskola oporreko ordutegiarekin», eta horrez gain, udalak azaldu du, uztailean itetik aurrera ordutegi aldaketa egongo dela berriro ere, «udako ordutegia» izango baita.

Eta gaur indarrean jarriko den hirugarren eta azken erabakia, Kaxkoko zamalanak egin daitezkeela da, eguerdikio 13:00ak arte.

Hala ere, udalak gaineratu du, ordu horretatik kanpo, ezin direla ibilgailuak ibili, «ibilgailuen sarrera-irteera debekatuta egongo da». **K**

Kultur elkarteentzako bilera deia, biharko

HERNANI BITERI

Kultur elkarteentzako bilera baten berri eman nahi izan du udalak, «bertan 2020ko kultur programa eta jardueretarako diru laguntzen egoeraren berri emateko». Beraz, bihar arratsaldeko 19:00etan, Biterin izango da aipatutako bilera hau, eta udalak adierazi du, parte hartzeko asmoa izanez gero, aurrez konfirmatzea eskertuko duela, eta «maskara ere ekartzeko» deia luzatu du.

Odola eman eta organo-donante egiteko aukera, gaurkoan ere

HERNANI ODOL EMATEA

Osasun alarma-egoera ezarri zenetik egin den bezala, odola eman eta organo-donante egiteko aukera izango da gaurkoan ere Goiz Eguzkin, aurretik hitzordua hartuta. Horretarako, 943 00 78 84 telefonora deitu behar da.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Adin guztietako auzotarrek hartu zuten parte pasa den asteburuan, ospatutako Mendekoste Jai berezietan.

Txupinazo, etxafero eta danborradarik ez zen falta izan

HERNANI MENDEKOSTE JAIK
Aurtengoan, ezin izan dira betiko jaiak ospatu, Covid-19ak eragindako egoera dela medio. Hala ere, Koronabirusak ez

zituena gerarazi Florida-Etxeberri auzoetako Mendekoste Jaiak, izan ere, txupinazoa bota zuten, etxaferorik ez zen falta izan, eta ohiko danborrada ere

egin zuten balkoietatik izan bazen ere. Giro ederra jarri zuten auzoan, txikienetik helduenera, balkoietatik festa ere egin daitezkeela erakutsiz.